

Oraingoan garapen pertsonalaren arloa lantzea gustatuko litzaidake. Beraien adina kontuan hartuta, nortasuna, lagunekin dituzten harremanak, horrekin lotuta bizi dituzten emozioak, arazoak zer diren eta nola bizi dituzten....

Horretarako hasieran “froga-testa” egin dezatela, bakoitzak berea besteekin komentatu gabe, harremanetan nolakoa den. Erantzun guztiak zuzenak dira, bakoitza den bezalakoa da eta hori da eskatzen dena hemen. Horrela, lagunekin daudenean gauzak kontatzen dituzten edo ez, kritikak nola jasotzen dituzten, arazoak sortzen direnean nola jokatzeko duen....

Eta ondoren “un puente hacia Terabithia” pelikula ikusi. Azalduko diegu 2 gazteren pelikula bat ikusiko dutela, familia, ikastetxean... eta fantasiaren bidez zailtasunei aurre nola egiten dien. Hasi baino lehen eskatuko diegu beraien bizitzan dituzten arazo edo gatazkak aipatzeko (azterketak gainditzea, inork ez insultatzea...) eta arbelan idatziko ditugu denon artean. Ondoren zubi bat marraztuko dugu eta beste aldean arazo horien soluzioak jarriko ditugu. Arazoei aurre nola egin diezaioketen ikus dezaten. Ondoren pelikula ikusiko genuke.

Eta gai honekin amaitzeko hainbat jarduera.

1. Pelikulan zehar agertutako hainbat arazo edo gatazka identifikatu eta sailkatu.
2. Hizki zopan emozioak adierazten dituzten 10 adjetibo topatu. (gazteleraz)
3. 5 egoera arazotsu aztertu.
4. Elkarrizketa zatiak irakurri ondoren bakoitzaren jokatzeko modua identifikatu eta hausnartu.

Eta amaitzeko, hori dena egiten dutenean, beraiek hasieran erantzun duten testean oinarrituta, ze pertsonarekin identifikatzen diren pentsa dezatela, pelikula ikusi ondoren berriro testa egin beharko balute galdera bakoitzeko erantzun “egokiena” zein den komenta dezatela, hori ikusita momentu batzuetan jarrera aldatuko duten....

Pelikula ikusi duzue eta orain bertan agertutakoaren inguruan hainbat jarduera edo ariketa egingo ditugu. Ea zer ulertu duzuen.

1-Pelikulan zehar agertutako hainbat arazo edo gatazka esaldi bidez idatziak dauzkazu. Zure lana larriak edo arinak diren erabakitzea da. Ondoren gainontzeko ikaskideekin komentatu ea ados zauden.

- a) Leslie-ri ez diote komunera pasatzen uzten.
- b) Jess-ek uste du bere aitak ez duela maite.
- c) Janice-k May Belle-ren pastelak jan ditu.
- d) Gary-k Jess mehatxatzen du, "hilda zaude".
- e) Leslie errekan hiltzen da.
- f) Jess-ek bere aitaren giltzak galdu ditu.
- g) Scott-ek Jess-i farre egiten dio "arrebaren barruko arropa daramazu?"
- h) Janice-k Leslie-ri ketchup botatzen dio autobusean.
- i) May Belle-k anaiaren koadernoan marrazkiak egin ditu.
- j) Jess-en familiak arazo ekonomikoak ditu.

LARRIAK	ARINAK

2- Hizki zopan emozioak adierazten dituzten 10 adjetibo aurki itzazu.

3- Beheko taulan 5 egoera arazotsu daude, osatu taulan falta dena. Ondoren gauza bera egin zure egoera arazotsu batekin, taulako lerro bat osatu zure egoerarekin.

GERTAERA	EGOERA EMOZIONALA	MOMENTUKO PENTSAMENDUA	ERANTZUNA, PORTAERA
Jess-ek bere arrebaren zapatila arrosak eraman behar ditu.	Lotsa	Farre egingo didate	Zapatilak beltzez margotu.
Scott-ek Jess probokatzen du ergelen detektagailuarekin			
Jess-ek aitaren giltzak galdu ditu			
Leslie nagusien tokian eseri da autubusean			
Jess bere lagunaren heriotzaz enteratzen da	Sinesgaiztasuna	Ez da posible	“Leslie ez dago hilda”
	Errua	Berarekin gelditu behar nuen	Korri egin basotik, arrebari bultza
	Onarpena	Bere oroitzapenak gerazten zaizkit	Aitarekin negar egin, arrebarekin Terabithia partekatu

4- Jarraian dauden elkarrizketak irakurri ondoren erabaki azpiko esaldiak nor deskribatzen duen (letra bakoitza ze pertsonarekin lotuko zenuken). Ondoren erabaki zein den guztietatik egokiena zure ustez.

1)

Janice: baduzu dolar bat?

Leslie: ez

Janice: orduan galtzetan egin.

Leslei: arazoak dituzu?

Janice: alderantziz, lista. Arazoak zuk dituzu.

Leslie: (hanketara begira) hanka politak.

Janice: zer diozu?

Leslie: zubi baten azpian dauden eta bidaiariei konbatzen dien Troll-en istorio fantastiko batetaz ari nintzen.

2)

Leslie: (gelan) nire aitaren esanetan telebistak garuneko zelulak hiltzen ditu.

Scott: zure aitak ez dauka ideiarik, guk egunero ikusten dugu telebista.

Leslie: orduan arrazoia du.

3)

Scott: (Jess-en gelan) zapatil politak. Barruko arropa ere zure arreben da?

Gary: galdera bat egin dizu! Mariposon!

Jess: (ez du erantzuten).

a) Bere iritziak, pentsamenduak, sentimenduak erakustea saihesten du, ez du bere burua baloratzen, frustratuta sentitzen da....

b) Bere buruarengan konfidantza erakusten du, besteen iritzietara irekia dago, besteak errespetatzen ditu, umorea eta irudimena erabiltzen du, modu zuzenean adierazten du...

c) Bere iritzi eta sentimenduen gehiegizko autobalorazioa, besteak despreziatzen ditu umilduz, inolako errespeturik gabe adierazten...